

Lapurdiko itsas hegiko euskararen azterketa dialektologikoa

Tesiaren egilea: Maitena Duhalde de Serra

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Doktorego-programa: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia

Jakintza-arloa: Dialektologia

Tesi-zuzendaria: Iñaki Camino Lertxundi eta Xarles Videgain Castet

Tesiaren laburpena:

Dialektologiaren baitan kokaturiko ikerlan honek hizkuntzaren aldakortasun geografikoa du ardatz nagusia, eta geografia-eremua, berriz, Lapurdiko itsas hegia. Tesi honen helburu nagusia Lapurdiko itsas hegiko ahazko euskararen deskribapena eta konparazioa ekartzea da, hots, *kostatar* mintzoaren lehenbiziko monografia aurkeztea. Horretarako, dialektologian usaiakoak diren irizpideak aintzat hartuz lekukoak hautatu eta grabatu ditugu, ahazko corpus baten sortzeko.

Lapurdiko itsasaldeko mintzoaren kokatzeko, isoglosak finkatzeko, ezaugarrien geografia-hedadurak zein eragin-eremuak aztertu ahal izateko, bilduriko datuak ondoko hizkerekin kontrastatzea ezinbertzekoa da; horretarako, gure esku diren dialektologiako lanak aintzat hartu ditugu eta gure datu-biltzeak ekialdera hedatu ditugu, alegia, Sarako eta Arrangoitzeko eskualdeetara. Lapurdiko itsas hegiko euskararen deskribapena zein inguruko hizkerekin alderatzea egiteaz gain, gure eskualdeko euskararen bilakaeraren berri ematen ahalegindu gara, XVII-XIX. mendeen bitarteko lekukotasunak lagun.

Louis-Lucien Bonapartek XIX. mendearen erdian bildu datuak eta gureak erkatuz, ikusi ahal izan dugu Lapurdiko hego-mendebal eta mendebal-erdialdeko mintzoak Donibane Lohizunera so egon direla azken mendean. Donibane Lohizune-Ziburu izan da eskualdeko hiri eta portu euskaldun inportanteena eta Lapurdiko mendebaleko ahazko mintzairetan izan du eragina, bertako hizkuntza-batasuna indartuz.

Ipar Euskal Herrian gaindi kurrutzen duten ezaugarriak ageri dira gure eskualdean eta, bertalde, muga politiko-administratiboaren lausotasuna agerian uzten dute Lapurdiko itsas hegiak Gipuzkoako eta Bortzerrietako euskaldunekin partekatzen dituen hizkuntza-ezaugarri berriek. Funtsean, ezaugarri-konbinazio horrek egiten du berezi gure eskualdeko euskara; izan ere, ekialdeko hizkerekin duen lotura ukaezina baldin bada ere, erdialdeko hizkerari begira ere egon da.

